AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

496

1842/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jaime Ruiz de Eguino Langarica jauna Debagoieneko Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 21eko 996/2006 Ebazpenaren bidez, Jaime Ruiz de Eguino Langarica jauna Debagoienako ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu zen.

Zuzendaritza Nagusi honek ikusi ditu ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak, eta

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jaime Ruiz de Eguino Langarica jauna Debagoieneko Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Giza Baliabideen Zuzendariordetzari, Mendaroko Ospitaleari eta Debagoienako Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.